



#NolaDaramazu? #Comolollevas?

Emaitzen txostena





AURKIBIDEA



- I. IKERKETAREN HELBURUA
- II. METODOLOGIA ETA LAGINA
- III. EMAITZEN ANALISIA
 - 1. Izurriari eta bere ondorioei buruzko iritziak
 - 2. Azaroaren 7aren aurretik hartutako neurriekiko adostasun-maila
 - 3. Hemendik aurrera har litezkeen neurri batzuekiko adostasun-maila
 - 4. Hainbat esparrutan kutsatzearen erraztasunari buruzko iritzia
 - 5. RadarCovid aplikazioak gazteen artean duen hedapena
 - 6. Ohitura-aldaketa izurriaren ondorioz
 - 7. Gazteen proiektuetan izandako eragina
 - 8. Ongizate emozionala eta sentimendurik zabalduenak
- IV. ONDORIOAK



I. IKERKETAREN HELBURUA




Ikerketa hau Euskadiko 15 eta 34 urte bitarteko gazteei zuzendutako inkesta batean oinarritzen da. Inkestaren bidez jakin nahi dugu zelako **iritziak** dituen eta nola bizitzen duen Euskadiko gazteriak Covid19 izurriaren bigarren olatua, alarma-egoera eta kutsaketak ekiditzeko neurri berriak ezarri ondoren.

Covid19aren inguruan Gazteen Euskal Behatokitik burutu dugun **bigarren txostena** da hau, beti ere gazteen egoera ezagutzeko asmoz. Lehenengoa martxoan egin genuen, etxeko konfinamenduaren hasierako egunetan. Bigarren honetan egoera ez da berdina; alarma-egoera indarrean dago baina neurriak ez dira martxokoak bezain murriztaileak. Edozelan ere, helburua hau da: **ezarritako neurriak** eta har litezkeen beste batzuk nola baloratzen dituzten gazteek jakitea, bai eta izurriak zelako **eragina** izan duen gazteen ohituretan eta proiektuetan ere ezagutzea. Era berean, jakin nahi dugu nola sentitzen diren gazteak momento honetan eta **zerk kezkatzen dituen** gehien.




II. METODOLOGIA ETA LAGINA



- Inkesta **ONLINE** egin da; honek datu biziak eta arin jasotzeko aukera ematen baitigu. Inkesta **2020ko urriaren 30ean hasi zen eta azaroaren 4an bukatu zen**. WhatsApp bidez zabaldu zen, “elur-bolaren” metodoaren bidez, hasierako kontaktu batzuetatik abiatuta, gazteek beraiek zabaldu dute inkesta. Sei egun horietan **1.423 inkesta** jaso ziren.
- Lagina ez da probabilitikoa, **gazteak ez dira zoriz aukeratuak izan**, hala erabaki dutenek erantzun dute.
- Emakumeak eta 25 urtetik beherako gazteak gizonezkoak eta 25 eta 34 urte bitartekoak baino neurri handigoan animatu dira inkestari erantzutera, ondoko taulan agerian dagoen moduan. Laginean kide gehiago dituzten talde horien iritzien pisu handiagoak ekar lezakeen iritzi-alborapena saihesteko, **lagina adinaren eta sexuaren arabera haztapenaren bidez orekatu da**, Euskadiko gazteen benetako banaketari egokitzeko.



II. METODOLOGIA ETA LAGINA




Laginaren osaketa

		Absolutuak	%
Adina	15-19 urte	513	36,1
	20-24 urte	480	33,7
	25-29 urte	265	18,6
	30-34 urte	165	11,6
Sexua	Gizonak	428	30,1
	Emakumeak	971	68,2
	Ez-bitarra edo ez dute erantzun	24	1,7

- Beren sexua adierazi ez dutenei edo “ez-bitarra” kategoriari atxikitu direnei ez zaie **sexuaren araberako haztapena** aplikatu; beraz, beren erantzunak ez dira guztizko portzentajeetan sartzen.
- Bestalde, adinaren araberako analisisian kategoria bakar batean sartu dira **25 eta 34** urte bitarteko gazteak, adin talde guztiek antzeko pisua izateko.
- Diseinua, datu-bilketa, arazketa eta analisisia **Gazteen Euskal Behatokiari** dagozkio.



III. EMAITZEN ANALISIA




1. Izurriari eta bere ondorioei buruzko iritziak

- Izurriari buruzko iritzietan, azpimarratzekoa da Covid19aren hedapenean norberaren erantzukizunarekin dagoen adostasun-maila handia, hamar gaztetik zazpi oso ados edo nahikoa ados baitaude **kutsatzeak murriztea neurri handiagoan dagoela pertsonen esku, gobernuen esku baino** dioen baieztapenarekin. Ez dago alde handirik, ez sexuaren, ez adinaren arabera, eta gazteenak dira baieztapen hori batez bestekoa baino zertxobait gehiago babesten dutenak: % 72,4.
- Gazte gehienen ustez egoera hau aprobetxatzen ari dira **izurritearen aurreko lan-baldintzak baino kaxkarragoak eskaintzeko orain**. (% 67,6). Ideia hori orokorragoa da 20 urtetik gorako gazteen artean (20-24 urtekoen % 72,7k uste du hori, bai eta 25-34 urtekoen % 70,2k ere).
- Gazteek ez dute uste neurriak alferrikakoak direnik (% 67,4 ez daude ados horrekin), eta ez dute irudi katastrofistarik, ez dute uste kutsatzea saihestezina denik. Desadostasuna handiagoa da 20 urtetik aurrera, baina gehiengoak da adin-talde guztietan



III. EMAITZEN ANALISIA



1. Izurriari eta bere ondorioei buruzko iritzia

- Gehiago dira egoera hori **adinekoentzat gazteentzat baino gogorragoa** dela uste dutenak (% 51,1), gazteentzat gogorragoa dela deritzotenak (% 44,0) baino. 15 eta 19 urte bitartekoen artean bakarrik nagusitzen da kontrako ideia, hau da, prebentzio-neurriak betetzea gogorragoa dela gazteentzat adinekoentzat baino (15 eta 19 urte bitarteko % 54,8k uste baitu gogorragoa dela gazteentzat).
- Ez dago jarrera zehatzik izurritea **eskubideak eta askatasuna murrizteko aitzakia** izaten ari ote den planteatzen denean, ezta poliziak gehiago kontrolatu behar ote duen galdetzen denean ere. Gazteen erdiak ados daude baieztapen horiekin baina beste erdiak kontra. Hala ere, nabarmentzekoa da gazteen erdiek uste izatea pandemia eskubideak eta askatasunak mugatzeko aitzakia gisa erabiltzen dela (% 49,1). Emakumeek (% 53,4) eta 25-34 urte bitartekoek (% 51,6) gehiago babesten dute ideia hori.




III. EMAITZEN ANALISIA




1. Izurriari eta bere ondorioei buruzko iritziak

Pandemiari eta bere ondorioei buruzko hainbat baieztapenekiko adostasun maila (%)





III. EMAITZEN ANALISIA




1. Izurriari eta bere ondorioei buruzko iritziak

(%)		Guztira	Sexua		Adina		
			Gizonak	Emakumeak	15-19 urte	20-24 urte	25-34 urte
Orain eskaintzen diren lan-baldintzak (kontratua, soldata...) iazkoak baino txarragoak dira	Ados	67,6	63,5	71,7	56,9	72,7	70,2
	Ados ez	12,0	12,0	12,0	15,9	11,4	10,5
	Ed/Ee	20,4	24,4	16,3	27,2	15,8	19,3
Kutsatzeak murriztea neurri handiagoan da pertsonen esku, gobernuaen esku baino	Ados	70,2	68,9	71,5	72,4	70,9	68,9
	Ados ez	27,7	29,4	26,1	21,9	28,0	30,4
	Ed/Ee	2,0	1,7	2,4	5,7	1,1	0,7
Pandemia aitzakia ari da izaten eskubideak eta askatasuna murrizteko	Ados	49,1	44,9	53,4	44,5	48,2	51,6
	Ados ez	46,7	50,9	42,3	46,2	50,4	45,3
	Ed/Ee	4,2	4,2	4,3	9,3	1,4	3,2
Neurriak betetzeko beharrezkoa da poliziak gehiago kontrolatzea	Ados	49,4	48,9	49,8	49,6	44,3	51,5
	Ados ez	48,8	49,6	48,0	46,7	54,9	47,2
	Ed/Ee	1,8	1,4	2,1	3,8	0,8	1,3
Prebentzio-neurriak jarraitzea gogorragoa da gazteentzat, zaharrentzat baino	Ados	44,0	45,8	42,1	54,8	43,2	39,4
	Ados ez	51,1	48,6	53,7	37,5	52,3	56,8
	Ed/Ee	4,9	5,6	4,2	7,7	4,4	3,8
Hartzen ari diren neurri guztiak alperrikakoak dira, azkenean denok kutsatuko garelako	Ados	26,8	24,7	29,1	33,3	26,3	24,2
	Ados ez	67,4	69,3	65,4	60,1	68,0	70,5
	Ed/Ee	5,8	6,0	5,5	6,6	5,7	5,4



III. EMAITZEN ANALISIA



2. Azaroaren 7aren aurretik hartutako neurriekiko adostasun-maila

Ikerketa honetan jasotako informazioa ondo ulertzeko kontuan hartu behar da egin den **testuingurua**.


Inkesta egin zenean (**urriak 30 – azaroak 4**) indarrean zegoen alarma-egoera eta neurri murriztaile batzuk ezarrita zeuden, hala nola, gizarte-harremanak 6 pertsonetara mugatzea, mugakide diren udalerrien artean bakarrik mugitu ahal izatea, gaueko 11etatik goizeko 6ak arte kaletik ibiltzeko debekua, baina tabernak eta jatetxeak zabalik zeuden oraindik, ordutegia gaueko 11ak arte murriztuta bazuten ere.

Inkesta bukatu ondoren ezarri zen kirol ekitaldietan publikoa guztiz debekatzearen agindua (inkestan etorkizunerako neurri posibletzat proposatu zen), baina analisisan indarrean zeuden neurrien artean aztertu da.

Beraz, **inkestak ez du kontuan hartu gaueko 10etatik aurrera mugikortasuna mugatzen duen neurria, ezta tabernak eta jatetxeak ixtea agintzen duena ere**, horiek biak azaroaren 7an hasi baitziren indarrean.



III. EMAITZEN ANALISIA




2. Azaroaren 7aren aurretik hartutako neurriekiko adostasun-maila

- **Gazte gehienak ados daude** (oso ados edo nahikoa ados) azaroak 9 baino lehen ezarritako neurriekin. 25 eta 34 urte bitarteko gazteak dira adostasun-mailarik handiena erakutsi dutenak.
- Adostasuna argi eta garbi gehiengoduna da, eta ahobatezkoa, honako neurri hauekin: **maskara ez daramatenei edo txarto jarrita daramatenei isuna jartzea** (gazteen % 81,6 ados daude horrekin), **alarma-egoera ezartzea** (% 80,5), **botiloiak ekiditzeko parkeak gaueko 11etan ixtea** (% 78,2), **lonjak edo lokalak ixtea** (% 71,5), **bai eta txokoak eta soziedadeak ere** (% 67,6).



III. EMAITZEN ANALISIA



2. Azaroaren 7aren aurretik hartutako neurriekiko adostasun-maila

- Gazteen erdiek baino gehiagok beren adostasuna azaldu dute ondoko neurriekin ere: **kirol ekitaldietan publikoa guztiz debekatzea** (% 61,7), **tabernak eta jatetxeak gaueko 11etan ixtea** (% 60,8), **gizarte-harremanak 6 pertsonetara mugatzea** (% 56,9) eta **gaueko 11etatik goizeko 6ak arte mugikortasuna mugatzea** (% 54,9). **Mugikortasuna alboko udalerrietara bakarrik mugatzeak** aldekoen eta kontrakoen artean erdibitu ditu gazteak (% 50,2 ados daude eta % 49,4 kontra).
- Hala ere, gazteenak ez daude ados neurri batzuekin:
 - **Gaueko mugikortasuna mugatzearen** kontra azaldu dira 20 eta 24 urte bitartekoak % 56,4 eta 15 eta 19 urte bitartekoak % 53,6.
 - **Gizarte-harremanak 6 pertsonetara mugatzearen** kontra agertu dira 20 urtetik beherako gazteen % 55,1.
 - Eta 20 eta 24 urte bitartekoak artean, % 56,9 ez dago ados **mugikortasuna alboko udalerrietara bakarrik mugatzearekin**.




III. EMAITZEN ANALISIA




2. Azaroaren 7aren aurretik hartutako neurriekiko adostasun-maila

2020ko azaroaren 7a baino lehen indarrean zeuden neurriekiko adostasun maila (%)





III. EMAITZEN ANALISIA



2. Azaroaren 7aren aurretik hartutako neurriekiko adostasun-maila

2020ko azaroaren 7a baino lehen indarrean zeuden arlo orokorreko neurriekiko adostasun maila, sexuaren eta adinaren arabera (%)							
(%)		Guztira	Sexua		Adina		
			Gizonak	Emakumeak	15-19 urte	20-24 urte	25-34 urte
Maskara/musukoa ez daramatenei edo txarto jarrita daramatenei isuna jartzea	Ados	81,6	80,9	82,3	82,4	80,7	81,6
	Ados ez	17,7	18,7	16,5	16,7	18	18
	Ed/Ee	0,8	0,3	1,2	0,9	1,4	0,4
Alarma-egoera ezartzea	Ados	80,5	80,8	80,1	78,6	79,3	81,9
	Ados ez	18,7	18,9	18,4	19,5	20,3	17,6
	Ed/Ee	0,8	0,3	1,4	1,9	0,4	0,5
Mugikortasuna gaueko 11etatik goizeko 6ak arte mugatzea	Ados	54,9	54,2	55,5	45,5	43,5	64,1
	Ados ez	44,9	45,6	44,1	53,6	56,4	35,9
	Ed/Ee	0,2	0,2	0,3	0,8	0,2	0,0
Gizarte-harremanak 6 pertsonetara mugatzea	Ados	56,9	57,7	56,1	43,5	51,9	65,4
	Ados ez	41,9	40,5	43,3	55,1	46,7	33,7
	Ed/Ee	1,2	1,8	0,6	1,5	1,4	1,0
Euskadiko herri guztiak konfinatzea	Ados	50,2	52,9	47,4	49,5	42,6	53,8
	Ados ez	49,4	47,1	51,8	49,3	56,9	46,2
	Ed/Ee	0,4	0,0	0,8	1,1	0,5	0,0



III. EMAITZEN ANALISIA



2. Azaroaren 7aren aurretik hartutako neurriekiko adostasun-maila

2020ko azaroaren 7a baino lehen indarrean zeuden aisialdiari lotutako espazioak eta lokalak ixteari buruzko neurriekiko adostasun maila, sexuaren eta adinaren arabera (%)							
(%)		Guztira	Sexua		Adina		
			Gizonak	Emakumeak	15-19 urte	20-24 urte	25-34 urte
Botiloiak ekiditzeko parkeak gaueko 11etan ixtea	Ados	78,2	76,7	79,7	76,2	74,6	80,6
	Ados ez	20,7	22,1	19,2	22,6	23,3	18,7
	Ed/Ee	1,1	1,2	1,1	1,2	2,1	0,6
Lonjak eta lokalak ixtea	Ados	71,5	71,2	71,8	60,8	66,5	78,5
	Ados ez	26,4	26,6	26,2	34,3	30,9	20,8
	Ed/Ee	2,1	2,2	2,1	5,0	2,5	0,6
Txokoak eta soziedadeak ixtea	Ados	67,6	68,5	66,8	59,8	63,7	73,0
	Ados ez	30,8	29,9	31,8	36,9	34,5	26,4
	Ed/Ee	1,5	1,6	1,4	3,3	1,7	0,6
Kirol ekitaldietan publikoa guztiz debekatzea	Ados	61,7	62,8	60,5	57,4	61,7	63,6
	Ados ez	37,6	36,6	38,6	41,5	37,5	35,8
	Ed/Ee	0,7	0,6	0,9	1,1	0,8	0,5
Tabernak eta jatetxeak gaueko 11etan ixtea	Ados	60,8	63,2	58,3	56,3	51,3	67,0
	Ados ez	38,6	36,4	40,8	42,2	48,2	32,7
	Ed/Ee	0,6	0,4	0,9	1,4	0,5	0,3




III. EMAITZEN ANALISIA



3. Hemendik aurrera har litezkeen neurri batzuekiko adostasun-maila

- Inkesta egin zenean indarrean zeuden hainbat neurri buruz galdetu ez ezik, etorkizunean ezar litezkeen beste batzuei buruz ere galdetu dugu. Inkesta egin zenean ezarrita ez zeuden neurri horiekiko adostasun-maila txikiagoa da.
- Hala ere, **gazte gehienak ados** daude (oso ados edo nahikoa ados) etxetik lan egin dezaketen guztiei **telelana eskaintzearekin** (% 59,1), bai eta **premia bizikoak ez diren saltokiak ixtearekin** ere (% 56,6).
- Baina gutxi dira **polikiroldegiak eta gimnasioak** ixtearen aldekoak (% 40,3 ados leudeke horrekin baina, gehiago, % 58,8, kontra) eta are gutxiago dira **ikastetxeak** ixtearen aldekoak (% 27,4 ados eta % 71,3 kontra).



3. Hemendik aurrera har litezkeen neurri batzuekiko adostasun-maila

- Martxoan bezalako **etxeko konfinamendua** eta asteburuetan etxeko konfinamendua ezartzea oso baztertuak dira. Gazteen % 68,6 konfinamendu osoaren kontra azaldu dira eta % 71,7 asteburuetako konfinamenduaren kontra.
- 25 eta 34 urte bitartekoek gazteagoek baino babes handiagoa ematen diete ondoko neurri posiblei: telelana, saltokiak edota polikiroldegiak ixtea eta asteburuetan etxeko konfinamendua ezartzea.
- Beste muturrean, 20 eta 24 urte bitartekoak gainerakoak baino neurri handiagoan azaldu dira kontra martxoan bezalako konfinamendua edo asteburuetako konfinamendua planteatu direnean (% 77,0 konfinamendu osoaren kontra leudeke eta % 76,3 asteburuetako konfinamenduaren kontra). Adin talde horietakoak dira, halaber, kirol zentroak ixtearen kontra neurri handiengan azaldu direnak (% 66,7 neurri horren kontra leudeke).




III. EMAITZEN ANALISIA



3. Hemendik aurrera har litezkeen neurri batzuekiko adostasun-maila

2020ko azaroaren 7an indarrean ez zeuden neurri posible batzuekiko adostasun maila (%)






III. EMAITZEN ANALISIA



3. Hemendik aurrera har litezkeen neurri batzuekiko adostasun-maila

2020ko azaroaren 7an indarrean ez zeuden neurri posible batzuekiko adostasun maila, sexuaren eta adinaren arabera (%)							
(%)		Guztira	Sexua		Adina		
			Gizonak	Emakumeak	15-19 urte	20-24 urte	25-34 urte
Etxetik lan egin dezaketen guztiei telelana eskaintzea	Ados	59,1	60,8	57,4	54,4	57,5	62,0
	Ados ez	39,9	38,4	41,4	43,9	41,4	37,5
	Ed/Ee	1,0	0,8	1,2	1,7	1,3	0,5
Premia bizikoak ez diren saltokiak ixtea	Ados	56,6	60,7	52,4	52,0	54,6	59,5
	Ados ez	42,6	38,7	46,7	45,5	45,2	40,2
	Ed/Ee	0,8	0,7	0,9	2,6	0,2	0,2
Polikiroldegiak eta gimnasioak ixtea	Ados	40,3	42,2	38,5	37,3	32,7	45,0
	Ados ez	58,8	56,8	61,0	61,1	66,7	54,4
	Ed/Ee	0,8	1,1	0,6	1,6	0,6	0,6
Ikastetxeak ixtea	Ados	27,4	30,8	23,8	38,6	25,4	23,0
	Ados ez	71,3	67,5	75,2	58,9	73,3	76,2
	Ed/Ee	1,3	1,7	1,0	2,4	1,3	0,9
Martxoan bezala, etxean konfinatzea	Ados	26,7	31,9	21,2	29,4	20,2	28,2
	Ados ez	68,6	63,6	73,7	62,2	77,0	67,9
	Ed/Ee	4,8	4,5	5,1	8,3	2,8	4,0
Asteburuetan etxean konfinatzea	Ados	25,1	25,2	24,9	20,6	20,7	29,0
	Ados ez	71,7	71,0	72,4	75,7	76,3	67,9
	Ed/Ee	3,2	3,8	2,7	3,7	3,1	3,1



4. Hainbat esparrutan kutsatzearen erraztasunari buruzko iritzia

- **Gazte gehienek uste dute oso erraza edo nahikoa erraza dela proposatutako esparru guztietan kutsatzea.**
- la gazte gehienak kontziente dira aisialdiko praktika batzuek duten arriskuaz, hala nola, **botiloiak** (% 94,6k uste du oso edo nahikoa erraza dela horrelakoetan kutsatzea). Erraztasun hori talde guztietako gehienek aitortu dute, baina emakumeek gizonek baino gehixeago (% 96,2 eta % 93,1, hurrenez hurren).
- Beste esparru batzuetan ere oso erraz kutsa daitekeela adierazi dute gazteek, batez ere, **garraio publikoan** (hala uste du % 87,6k) eta **familia-bileretan** (% 76,1en ustez). Garraio publikoan kutsatzeko erraztasunari dagokionean, ez dago alde esanguratsurik sexuaren edota adinaren arabera. Baina familia-bileretan gerta daitezkeen kutsaketei dagokienez, arrisku handiagoa antzematen dute emakumeek (% 79,4), eta 25 eta 34 urte bitarteko gazteek (% 79,9).



III. EMAITZEN ANALISIA



4. Hainbat esparrutan kutsatzearen erraztasunari buruzko iritzia

- Beren ustez, **ikastetxeetan** edo **lantokietan** (% 65,4), **polikiroldegietan eta gimnasioetan** (% 67,8), bai eta **osasun zentroetan** ere (% 57,0), oso erraza da kutsatzea.
- 15 eta 19 urte bitartekoen % 71,3k uste dute oso edo nahikoa erraza dela **ikastetxeetan** edo **lantokietan** kutsatzea; beren adinari erreparatuta, ondoriozta daiteke ikastetxeei buruz hitz egiten ari direla, batez ere.
- **Polikiroldegietan eta gimnasioetan** egon daitekeen arriskua gehiago antzematen dute 25 eta 34 urte bitartekoen (% 70,6), eta **osasun zentroetan** kutsatzeko arriskua dagoela gehiago aipatu dute gazteenek (horien % 62,1en iritziz, ospitaleak eta osasun zentroak kutsatzeko arriskuko tokiak dira).




III. EMAITZEN ANALISIA



4. Hainbat esparrutan kutsatzearen erraztasunari buruzko iritzia

Hainbat esparrutan kutsatzea erraza izateari buruzko iritziak (%)





III. EMAITZEN ANALISIA



4. Hainbat esparrutan kutsatzearen erraztasunari buruzko iritzia

Hainbat esparrutan kutsatzea erraza izateari buruzko iritzia, sexuaren eta adinaren arabera (%)							
(%)		Guztira	Sexua		Adina		
			Gizonak	Emakumeak	15-19 urte	20-24 urte	25-34 urte
Botiloietan edota jaietan	Erraza	94,6	93,1	96,2	92,6	93,6	96,0
	Erraza ez	4,2	5,8	2,5	5,3	6,2	2,8
	Ed/Ee	1,2	1,1	1,3	2,0	0,2	1,2
Garraio publikoan	Erraza	87,6	86,9	88,3	87,6	88,4	87,2
	Erraza ez	11,2	11,8	10,6	10,5	10,9	11,7
	Ed/Ee	1,2	1,2	1,1	1,9	0,7	1,1
Familia-bileretan	Erraza	76,1	72,8	79,4	69,4	74,5	79,7
	Erraza ez	23,0	26,3	19,6	28,9	25,2	19,3
	Ed/Ee	1,0	0,9	1,1	1,7	0,3	1,0
Gimnasioetan eta polikiroldegietan	Erraza	67,8	66,9	68,7	65,1	64,0	70,6
	Erraza ez	29,8	31,0	28,5	30,9	34,1	27,4
	Ed/Ee	2,4	2,1	2,7	3,9	1,8	2,0
Lantokian edo ikastetxean	Erraza	65,4	66,6	64,1	71,3	66,8	62,0
	Erraza ez	33,0	31,7	34,4	26,9	32,8	35,9
	Ed/Ee	1,6	1,7	1,5	1,8	0,4	2,0
Ospitalean edo osasun zentroetan	Erraza	57,0	50,9	63,3	62,1	56,1	55,1
	Erraza ez	41,5	47,9	35,0	35,9	42,1	43,7
	Ed/Ee	1,5	1,3	1,8	2,0	1,8	1,2



III. EMAITZEN ANALISIA



5. RadarCovid aplikazioak gazteen artean duen hedapena

- **Gazteen laurden batek dagoeneko deskargatu du RadarCovid izeneko aplikazioa** (% 24,2). Hori egin dutenen ehunekoa handiagoa da gizonetzkoen eta 25 urtetik gorakoen artean (% 28,7 eta % 31,1, hurrenez hurren).
- Gainera, ia % 20 deskargatzea pentsatzen ari da. Pentsatzen ari diren guztiek egingo balute ere, ez lirateke gehiengora iritsiko aplikazio hori luketenak (% 43,0).


RadarCovid aplikazioa deskargatu duten edo deskargatzeko asmoa duten gazteak (%)



■ Deskargatu dute dagoeneko ■ Oraindik ez dute deskargatu baina egiteko asmoa dute



III. EMAITZEN ANALISIA




6. Ohitura-aldaketa izurriaren ondorioz

- Izurriak eta aisialdirako, biltzeko eta mugitzeko aukerak murrizteak zera ekarri du: **orain askoz gutxiago egiten dira jaiak eta botiloiak** (gazteen % 69,6k lehen gutxiago egiten dituzte), **gutxiago joaten da tabernetara** (% 63,1 lehen baino gutxiago), eta **gutxiagotan joaten da bizikideak ez diren senideak bisitatzera** (gazteen % 63,8 lehen baino gutxiagotan).
- Zenbat eta nagusiagoa izan orduan eta gehiagok diote jaiak eta botiloiak egiteko ohitura murriztu dutela (% 76,2) bai eta tabernetara joateko ohitura ere (% 75,4). Gazteenen taldeetan ere gehienek gauza horiek lehen baino gutxiagotan egiten dituztela diote, baina ohitura horiek ez dituzte murriztu 25 urtetik gorakoen heinean.
- Gazteen erdiek lehen beste **kirola aire zabalean** egiten duten arren (% 49,6), gehiago dira ohitura hori murriztu dutenak (% 28,4), handitu dutenak (% 19,3) baino. Gehien murriztu dutenak 15 eta 19 urte bitartekoak dira (% 33,9), agian kirol lehiaketa asko bertan behera geratu izan direlako.
- Boluntariora egitea edo ligatzeko webguneak eta aplikazioak erabiltzea bezalako jardueretan ere eragin negatiboa izan du izurriak.



III. EMAITZEN ANALISIA



6. Ohitura-aldaketa izurriaren ondorioz

- Aitzitik, egoera honek **sare sozialen erabilera areagotzea eta online gehiago erostea** ekarri du.
- Aurretik gazteen artean sare sozialen erabilera ohikoa bazen ere, nabarmen handitu da izurriaren ondorioz eta orain % 52,4k lehen baino gehiago erabiltzen dituela dio. Aipatzekoa da emakumeen artean eta, batez ere, 20 urtetik beherakoen artean izandako igoera; talde horietan % 56,2k eta % 60,3k, hurrenez hurren, adierazi dute lehen baino gehiago erabiltzen dituztela.
- Online erostearen ohitura ere handitu da eta % 37,5ek lehen baino gehiago erosten duela online adierazi du. 25 eta 34 urte bitartekoen artean zabaldu da gehien (horien % 40,1ek lehen baino gehiago egiten baitu), hau da, normalean erosahalten handiena dutenen artean.




III. EMAITZEN ANALISIA



6. Ohitura-aldaketa izurriaren ondorioz

Ohitura batzuen maiztasuna, pandemiaren aurretik izandakoarekin alderatuta (%)





III. EMAITZEN ANALISIA



6. Ohitura-aldaketa izurriaren ondorioz

Teknologia berriekin lotutako ohitura batzuen maiztasuna, pandemiaren aurretik izandakoarekin alderatuta, sexuaren eta adinaren arabera (%)							
(%)		Guztira	Sexua		Adina		
			Gizonak	Emakumeak	15-19 urte	20-24 urte	25-34 urte
Sare sozialak erabili	Lehen baino gehiago	52,4	48,7	56,2	60,3	57,4	46,6
	Lehen beste	40,7	42,7	38,7	35,1	35,4	45,6
	Lehen baino gutxiago	6,3	7,7	4,9	3,8	6,3	7,5
	Ed/Ee	0,6	0,9	0,2	0,8	0,9	0,3
Erosketak online egin	Lehen baino gehiago	37,5	35,8	39,3	33,5	35,8	40,1
	Lehen beste	53,3	56,1	50,5	53,2	54,0	53,1
	Lehen baino gutxiago	5,6	4,9	6,2	5,8	7,3	4,8
	Ed/Ee	3,6	3,1	4,0	7,6	3,0	2,0
Ligatzeko webguneak edo aplikazioak erabili	Lehen baino gehiago	9,5	12,2	6,6	4,9	13,5	9,8
	Lehen beste	43,8	45,9	41,6	43,5	50,0	41,2
	Lehen baino gutxiago	22,0	20,5	23,5	16,4	17,7	26,3
	Ed/Ee	24,8	21,4	28,3	35,2	18,8	22,7



III. EMAITZEN ANALISIA



6. Ohitura-aldaketa izurriaren ondorioz

Aisialdiarekin lotutako ohitura batzuen maiztasuna, pandemiaren aurretik izandakoarekin alderatuta, sexuaren eta adinaren arabera (%)							
(%)		Guztira	Sexua		Adina		
			Gizonak	Emakumeak	15-19 urte	20-24 urte	25-34 urte
Kirola aire zabalean egin	Lehen baino gehiago	19,3	18,2	20,5	15,6	21,8	19,9
	Lehen beste	49,6	49,3	49,9	46,7	52,3	49,8
	Lehen baino gutxiago	28,4	30,5	26,2	33,9	23,7	27,8
	Ed/Ee	2,7	2,0	3,4	3,8	2,1	2,5
Tabernetara joan	Lehen baino gehiago	7,2	8,4	6,1	11,7	11,6	3,3
	Lehen beste	27,7	25,5	29,9	38,1	31,8	21,1
	Lehen baino gutxiago	63,1	64,5	61,7	43,6	55,4	75,4
	Ed/Ee	2,0	1,6	2,3	6,6	1,2	0,2
Jai pribatuak edo botiloak egin	Lehen baino gehiago	5,9	6,8	5,0	9,5	9,5	2,8
	Lehen beste	16,3	19,4	13,2	19,7	16,5	14,8
	Lehen baino gutxiago	69,6	66,3	72,9	56,5	67,9	76,2
	Ed/Ee	8,2	7,5	8,8	14,4	6,1	6,2



III. EMAITZEN ANALISIA




6. Ohitura-aldaketa izurriaren ondorioz

Pertsonen jaramon egitearekin lotutako ohitura batzuen maiztasuna, pandemiaren aurretik izandakoarekin alderatuta, sexuaren eta adinaren arabera (%)							
(%)		Guztira	Sexua		Adina		
			Gizonak	Emakumeak	15-19 urte	20-24 urte	25-34 urte
Boluntariotza egin	Lehen baino gehiago	5,8	6,1	5,5	7,3	5,5	5,2
	Lehen beste	50,5	53,3	47,6	41,4	57,2	51,7
	Lehen baino gutxiago	22,3	21,0	23,7	20,4	22,8	22,9
	Ed/Ee	21,4	19,7	23,2	30,8	14,5	20,2
Zurekin bizi ez diren senideak bisitatu	Lehen baino gehiago	4,4	3,7	5,2	4,2	5,2	4,2
	Lehen beste	30,7	32,1	29,2	26,1	31,0	32,6
	Lehen baino gutxiago	63,8	62,7	64,9	67,6	63,7	62,1
	Ed/Ee	1,1	1,6	0,7	2,1	0,2	1,1



III. EMAITZEN ANALISIA




7. Gazteen proiektuetan izandako eragina

- la gazte erdiek diote izurria dela eta, bertan behera utzi dutela aurten egiteko planeatuta zeukaten **bidaia edo ospakizun garrantzitsu bat** (% 46,7). Portzentajea pixka bat handiagoa da emakumeen artean (% 51,1) eta 20 eta 24 urte bitartekoen artean (% 50,0).
- Gainera, hamar gaztetik batek adierazi du planifikatuta zuen **Erasmus edo ikasketa-trukea** egin gabe geratu dela (% 11,9). Gazteenen taldeetan ageriagoa da eragin negatibo hori, 20 eta 24 urte bitartekoen artean % 20,4 geratu da Erasmus egin gabe eta 15 eta 19 urte bitartekoen % 18,7k bertan behera utzi du planifikatutako ikasketa-trukea.
- Gazteen % 11,6k esan du ez duela egin pentsatuta zuen **gastu ekonomiko handia** (hala nola, pisu bat edo kotxe bat erosi). Kasu honetan 25 eta 34 urte bitartekoak nabarmentzen dira, pentsatutako gastu handi hori egin ez izanagatik (% 16,8).
- % 9,7k **ezin izan du lana aldatu**; 25 eta 34 urte bitartekoen kasuan % 12,5 dira plan hori bertan behera utzitakoak eta 20 eta 24 urte bitartekoen kasuan % 12,1.
- Bestalde, % 8,9 **ezin izan da bere kontura bizitzera joan**, nahiz eta hala planifikatuta izan. 25 eta 34 urte bitartekoen % 12,0k uko egin behar izan dio 2020rako planifikatuta zuen emantzipazioari, Covid19k sortutako egoeragatik.



III. EMAITZEN ANALISIA




7. Gazteen proiektuetan izandako eragina

- Oso oso gutxi esan dute pandemiaren ondorioz ezin izan dutela pentsatuta zuten masterra ikasi, ezkondu edo seme-alabak izan (proiektu horiei uko egin die % 5ek baino gutxiagok, kasu guztietan).
- Aitzitik, hamar gaztetik batek (% 10,8) esan du, pentsatuta ez bazuen ere, zerbait **ikasten** jarri dela (unibertsitateko gradu bat, Lanbide Heziketako gradu bat edo master bat). 20 eta 24 urte bitartekoen artean portzentaje hori % 14,9ra heltzen da.
- Gazteen % 6,8k **lana aldatu** du 2020an, nahiz eta aurretik pentsatuta ez izan. 25 eta 34 urte bitartekoen artean portzentajea handiagoa da (% 10,2).
- Gutxiago dira (hogei gaztetik bat) izurriagatik **emantzipatu** direnak, nahiz eta planifikatuta ez izan (% 5,3). Kasu honetan ere, gehiago gertatu zaie hori 25 eta 34 urte bitartekoei (% 7,9ri, hain zuzen ere).
- Eta %4,5ek pentsatuta ez bazuten ere, **gurasoen etxera bueltatu** dira. Egoera horretan apur bat gehiago egon dira 20 eta 24 urte bitartekoak (% 7,1).




III. EMAITZEN ANALISIA



7. Gazteen proiektuetan izandako eragina

2020. urterako ondoko proiektu bakoitza planeatuta zeukaten eta Covid19agatik aurrera eraman ez duten gazteak (%)






III. EMAITZEN ANALISIA




7. Gazteen proiektuetan izandako eragina

2020. urterako ondoko proiektu bakoitza planeatuta ez zeukaten baina Covid19agatik aurrera eraman duten gazteak (%)





III. EMAITZEN ANALISIA



7. Gazteen proiektuetan izandako eragina

Covid19agatik 2020. urterako zeuzkaten proiektuak aldatu dituzten gazteak, sexuaren eta adinaren arabera (%)							
Guztira	Sexua		Adina				
	Gizonak	Emakumeak	15-19 urte	20-24 urte	25-34 urte		
(%)							
Bertan behera utzitako proiektuak	Bidaia edo ospakizun garrantzitsua egin	46,7	42,5	51,1	44,0	50,0	46,6
	Kanpora ikastera joan (Erasmus edo ikasketa-trukea)	11,9	12,1	11,7	18,7	20,4	5,1
	Gastu ekonomiko handiak egin (pisu bat edo kotxe bat...)	11,6	10,4	12,9	2,5	9,5	16,8
	Lana aldatu	9,7	9,5	9,8	1,0	12,1	12,5
	Zure kontura bizitzera joan	8,9	9,1	8,7	2,0	8,9	12,0
	Master bat ikasi	2,9	3,2	2,5	1,0	4,8	2,9
	Ezkondu	1,6	0,9	2,3	0,1	0,2	2,9
	Seme-alabak izan	1,2	0,4	2,0	0,0	1,1	1,7
Nahiz eta planeatuta ez egon, aurrera eramanez diren proiektuak	Unibertsitateko gradu bat, LHko modulu bat edo master bat ikasi	10,8	10,4	11,3	9,7	14,9	9,6
	Lana aldatu	6,8	7,0	6,6	1,1	4,9	10,2
	Zure kontura bizitzera joan	5,3	5,8	4,9	1,8	3,1	7,9
	Zure gurasoen etxera bueltatu	4,5	4,4	4,6	0,6	7,1	5,2
	Seme-alabak izan	1,2	1,3	1,0	0,3	0,3	2,0



III. EMAITZEN ANALISIA



8. Ongizate emozionala eta sentimendurik zabalduenak

- Udazken honetan izurria dela eta, **gazteengan hedatuena dauden sentimenduak erantzukizuna eta konpromisoa** dira. % 84,6k sentitzen du hori, eta ez da sexuaren edo adinaren araberrako alderik antzematen.
- Bigarren sentimendurik hedatuena **amorrua** da; hamar gaztetik zazpi amorrua sentitzen dute (% 70,2). Emakumeek eta 20 eta 24 urte bitartekoek sentitzen dute gehien (% 75,5ek eta % 73,6k, hurrenez hurren).
- Gazteen % 68,1 oso edo nahikoa **arduratuta** dago, batez ere emakumeak (%77,0) eta 25 eta 34 urte bitartekoak (% 73,3). Izan ere, kezka eta ardura nabarmen handitzen dira adinean gora egin ahala.
- % 65,8k **asperdura** sentitzen du. Emakumeen artean (% 68,7) eta 15 eta 19 urte bitartekoen artean (% 68,6) hedatuago dago sentimendu hori.



8. Ongizate emozionala eta sentimendurik zabalduenak

- Gazteen erdiek **tristura** (% 55,2) eta **antsietatea** (% 52,6) sentitzen dute. Tristura eta bakardadea ohikoagoak dira emakumeen artean (% 62,7) eta 20 eta 24 urte bitartekoen artean (% 62,6). Antsietatea ere talde horietan dago hedatuen: emakumeen % 60,9k pairatzen dute, bai eta 20 eta 24 urte bitartekoen % 56,0k.
- Azkenik, **oso gazte gutxik sentitzen dute lasaitasuna** (% 37,8) **edo optimismoa** (% 31,1) gaur egun. Bi sentimendu horiek hedatuago daude gizon gazteengan, emakume gazteengan baino. 20 urtetik beherakoak dira baikorrenak.
- **Martxoko datuekin alderatuz gero** (orduan galdera berdina egin baitzen), ikus dezakegu orain gehiago direla egoera erantzukizunez eta konpromisoz bizi diren gazteak, baina askoz gehiago **handitu da proposatutako sentimendu ezkor bakoitza** (amorrua, kezka, asperdura, tristura eta antsietatea) sentitzen duten gazteen portzentajea.




III. EMAITZEN ANALISIA




8. Ongizate emozionala eta sentimendurik zabalduenak

2020ko udazkenean hainbat sentimenduen zabaltze maila (%)






III. EMAITZEN ANALISIA



8. Ongizate emozionala eta sentimendurik zabalduenak

Ondoko sentimendu bakoitza neurri handian edo nahikoan sentitu duten gazteak, 2020ko udaberrian eta udazkenean (%)





III. EMAITZEN ANALISIA



8. Ongizate emozionala eta sentimendurik zabalduenak

Sentimendu bakoitzaren zabalitze maila, sexuaren eta adinaren arabera (%)							
(%)		Guztira	Sexua		Adina		
			Gizonak	Emakumeak	15-19 urte	20-24 urte	25-34 urte
Erantzukizuna, konpromisoa	Handia+nahikoa	84,6	84,7	84,5	82,0	82,6	86,6
	Txikia+batere ez	14,1	14,3	13,9	16,0	16,5	12,2
Lasaitasuna	Handia+nahikoa	37,8	48,8	26,5	40,4	35,1	37,9
	Txikia+batere ez	61,8	51,0	72,9	59,2	64,8	61,7
Optimismoa, itxaropena	Handia+nahikoa	31,1	37,8	24,2	36,3	26,5	30,7
	Txikia+batere ez	68,4	62,1	74,9	63,1	73,4	68,6
Amorrua, haserrea	Handia+nahikoa	70,2	65,0	75,5	70,2	73,6	68,7
	Txikia+batere ez	29,3	34,7	23,7	28,5	26,4	30,9
Kezka, beldurra	Handia+nahikoa	68,1	59,4	77,0	57,2	67,5	73,3
	Txikia+batere ez	31,6	40,4	22,6	42,4	32,5	26,4
Asperdura	Handia+nahikoa	65,8	63,0	68,7	68,6	68,3	63,5
	Txikia+batere ez	33,5	36,5	30,3	29,9	31,5	36,0
Tristura, bakardadea	Handia+nahikoa	55,2	47,7	62,7	49,7	62,6	54,4
	Txikia+batere ez	44,4	52,0	36,7	49,7	36,7	45,3
Antsietatea	Handia+nahikoa	52,6	44,6	60,8	49,3	56,0	52,6
	Txikia+batere ez	46,2	54,1	38,1	48,3	43,2	46,5



IV. ONDORIOAK



- Gazte gehienak **arduratsu** ageri dira pandemiaren egungo egoeran eta inkesta egin aurretik **ezarritako prebentzio-neurri gehienen aldekoa** azaldu da. Horrek ez du esan nahi ahots kritikorik ez dagoen edo neurriak betetzea ez zaiela kostatzen.
- Hala ere, gazteak **hezkuntza- eta kirol-zentroak ixtearen aukeraren kontra** azaldu dira, eta are gehiago egiten diote **kontra balizko etxeko konfinamendu bati**.
- Adin horietan hain garrantzitsua den **lagunekin sozializatzeko** beharrak eta bikotekidearekin egoteko nahiak (eta kontuan hartu behar da gazte gehienak gurasoekin bizi direla, eta ez bikotekidearekin) azaltzen dute **etxeko konfinamenduaren eta udalerrien itxiera perimetralaren aurka** egitea.




IV. ONDORIOAK


- Bestalde, gazteak kontziente dira aisialdiko praktika batzuek duten **kutsatzeko arriskuaz**, hala nola, botiloiak, baina beste esparru batzuetan ere oso erraz kutsa daitekeela adierazi dute, hala nola, garraio publikoan.
- Erdiak baino gutxiago daude **RadarCovid** aplikazioa deskargatzeko prest. Nahiz eta gazteen artean sare sozialen erabilera oso hedatuta egon, horrelako aplikazioak erabiltzeak nolabaiteko kontrola ekar dezakeela uste dute batzuek.
- Gazteek diote pandemia hasi zenetik **sare sozialen erabilera eta online eginiko erosketak ugari** dituztela. Aitzitik, **harreman-aisialdia nabarmen murriztu** da, jaiak egitea eta tabernetara joatea barne.
- Hamar gaztetik batek **bertan behera** utzi behar izan ditu 2020rako planeatuta zuen kanpora ikastera joateko, lana aldatzeko edo emantzipatzeko **proiektua**, pandemia dela eta. Gainera, gazteen artean oso zabaldua dago ondoko ideia: krisi berri bati aurre egin behar diotela eta sortutako langabezia aprobeztatzen ari dela eskaintzen diren **lanpostuen lan-baldintzak kaskartzeko**.



IV. ONDORIOAK



- Momentu honetan, pandemiari dagokionez, gazteen artean zabalduen dauden **sentimenduak erantzukizuna eta konpromisoa** dira, eta jarraian **amorrua, kezka eta asperdura**. Gazteen erdiek **antsietatea, tristura edo bakardadea** sentitzen dute pandemiaren sortutako egoeraren ondorioz. Sentimendu ezkor guztiak asko zabaldu dira martxoko konfinamenduan izandakoekin konparatuta.
- Harremanetan eta aisialdian dituzten murrizketek, osasun-arloari ez ezik, enpleguari, ikasketetei edo planeatutako proiektuei buruzko **ikuspegi negatiboek**, eta hobekuntza-aurreikuspenik ezak **eragin zuzena dute gazteen ongizate emozionalean** eta oraina bizitzeko eran.



ESKERRIK ASKO

COVID-19 izurriteari buruzko

IKERKETA honetan parte hartu duten

GAZTE guztiei